

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2019ko lehen hiruhilekoko eroldari

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 5eko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespina ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuen 2019ko lehen hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen erroldari (espediente zenbakia: 2019/1/S328), eta erabaki horren berri 2019ko abenduaren 20ko ALHAOn (146. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2020ko urtarrilaren 27tik 2020ko martxoaren 26ra (biak barne) bitarteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2019ko lehen hiruhilekoko ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2020ko urtarrilaren 16a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA